



USTEKABEKO EGOERA BAT

Mokorro jaunak hasperen egin zuen eta bere bulegoko mahaian eseri zen, ostiralero bezala. Zenbat gustatzen zitzaizkion ostiralak eta zer gutxi institutuko korridoreetan entzutera behartuta zegoen barreak, oihuak eta jolasak. Gorroto zuen gaztetasuna, bai horixe, adin txatxuagorik ba ote?

Txikia zenean hilerrian lan egitearekin amesten zuen, aitak bezala. Orduak ematen zituzten elkarrekin hilobiak txukuntzen, belar txarrak kentzen eta bideak garbi mantentzen. Horregatik, inork ez luke imajinatu ere egingo Patxi Mokorrok, azkenean, hiriko instituturik handiena zuzentzen amaituko zuela.

Gabonetan amak katilu bat oparitu zion bulegoan izan zezan. «Munduko zuzendaririk onena» leloa zeukan erdi-erdian marraztuta eta, egia esan, horrelaxe sentitzen zen bera. Bestela, nola litzateke posible Kasilda institutua, hiriko handiena izateaz gain, inoiz arazorik eman ez zuen institutu bakarra izatea? Amaren katiluan kafea zerbitzatu eta zurrutada bat eman zion. Une hartan, ikasle guztiak getetan zintzo, isilik eta eserita egongo ziren, irakasleek haien burmuinak data eta izen zentzugabekoz betetzen zituzten bitartean. «A ze bakea!» pentsatu zuen, eta goizean gaz-

te bati konfiskatutako mugikorra desblokeatzen saiatu zen. Ez zuen lortu. Ez zituen telefono moderno haiek ulertzen.

Ostiral hartan, Mokorro jaunak bulegoko leiho handiari erreparatu izan balio, kanpoan zelatatzen ari zen txori arraro bat ikusi izango zuen eta institutuko horman norbait grafiti bat egiten ari zela ohartuko zen. Baina Patxi Mokorro jaunak ez zuen inoiz leihoa estaltzen zuen pertsiana veneziarra irekitzen, beraz, ez zuen ezer ikusi.

Jolas-orduan hasi zen dena, patiotik zetozen algarek lozorro goxotik atera zutenean. Guztiz esnatzea lortu zuenerako, sekulakoa bihurtu zen algaren oihartzuna. Mokorro jaunari ez zion astirik eman pertsiana irekitzeko, Salazar andrea ziztu batean eta atea jo gabe sartu baitzen bere bulegoan. Gorri-gorri zetorren, izerditan. Antza, institutuko lau solairuko eskailerak korrika igo zituen. Salazarrek ez zuen inoiz korrika egiten, ezta goizetan autobusa hartzeko ere.

–Patxi, zatoz hau ikustera –esan eta berriz ere ziztu bizian irten zen bulegotik.

Ikasleen begiradapean, Kasildako korridoreetan barrena bikote komiko bat ziruditen: Salazarrek soinean zeraman txandal urdinak izterrak urratzen zizkion pausu bakoitzeko, Mokorroren bibotea hegan zebilen bitartean. Abiadura aurpegiarekin iritsi ziren institutuko patiora; horma handienaren erdi-erdian, Kasildan inoiz eginiko margorik koloretsuena ikus zitekeen:

MOKORRO ZOMORRO

Grafitia sekulakoa zen: kolore turkesa, berdea eta horia nahasten zituen, eta esan beharra dago eraikin grisari nolabaiteko bizipoza ematen ziola.

Mokorro jauna, jakina, ez zen nirekin ados egongo. Bere aurpegira pospolo bat gerturatu izan bagenu, momentuan bertan piztu izango litzateke, hain zegoen gorria.

–Nor izan da?! –oihukatu zuen, eta ordura arte barrez eta txutxu-mutxuka aritu ziren ikasle eta irakasle guztiak mutu geratu ziren. Inork ez zuen ezertxo ere esan.

Egoera deseroso bat bizi izan baduzue inoiz, jakingo duzue horrelakoetan denbora ez dela normal pasatzen, eta segundo gutxi haiek minutu luzeak iruditu zitzaizkien bildutakoei.

Patxiren ondotik alde egin eta margoaren aurrean jarri zen Salazar.

–Zikinkeria hau egin duenak esan dezala oraintxe bertan... –*oraintxe bertan* horri indar berezi bat eman nahi izan zion Maite Salazarrek eta konturatu gabe komiko samarra geratu zitzaion.

Badakizue zer gertatzen den barre egin ezin duzunean, ezta? Barregura gehiago sartzen zaizula eta horixe izan zen Txomin Beitia azken ikasturteko ikasle zaharrenari gertatu zitzaiona, sekulako algarak ihes egin ziola. Barrea munduko gauzarik ederrena izateaz gain, oso-oso kutsakorra da, beraz, imajina dezakezue ondoren datorrena.

–Ixo! Isiltzeko! Guztiak zigortuta! Hemendik ez da inor irten-go erruduna nor izan den argitu arte! –Patxi Mokorro bere onetik aterata zegoen, bibotea bera ere luzatu egin zitzaiola zirudien; ezpata baten antzera airea mehatxatzen zuen.

–Zu ez zinen urruti ibiliko –esan zuen Salazarrek eta Txomini esku bat jarri zion sorbalda gainean.

Agian, pentsatuko duzue Maite Salazar oso pertsona argia zela, superdetektibe moduko bat, baina ez. Salazarrek beti leporatzen zizkion oker guztiak Txomini, egun batean bere ikasgela-ko aulkian txintxeta bat jarri zionetik.

–Zu izan zara, ezta? –Txominen aurpegira gerturatu zen Mokorro.

–Ni... ez... ez, nik esan ni ez... bai, ez ez, ez nuen bai esan nahi, nik... –bera ez zela izan esan nahi zuen, baina hain zegoen urduri, ezen ez zitzaizkion hitzak ateratzen, inoiz ez baitzuen Mokorro jauna horren haserre ikusi. Zuzendariaren bibotea Txominen masailera gerturatu zen, poliki.

–Esan, zu izan zara?

Txomini oilo-ipurdia jarri zitzaion; zuzendariaren biboteak beldurra ematen zion –eta nazka pixka bat ere bai–, eta gero eta gertuago ikusten zuen. Eta bibote luze nazkagarria bere masailetik milimetro batera zegoela, patioaren beste aldean ahots bat entzun zen:

–Ni izan naiz.

Martin Martinaren oinak ez ziren lurrera iristen. Mokorro jaunaren bulegoko atean zegoen banku zaharra egin zutenean, nonbait, ikasleak oso altuak ziren. Baina harrezkero esertzen ziren guztiak izatez zirena baino txikiago ziruditen. Horrekin ez dut esan nahi Martin Martina altua zenik. Egia esan, Kasilda institutuko hamahiru urteko ikaslerik baxuena zen.

Bere eskuetako azaleko tindu kolore turkesa biziak jantzi-ta zeramatzan galtza zabal gris eta jertse txanodun beltzarekin kontrastatzen zuen. Lepotik zintzilik zuen giltza txikiari bueltaka zebilen, urduri. Ondoan zituen, beti bezala, Ane eta Luka. Hiru lagunek ez zioten Txomini begirik kentzen.

Txominek zurrumurruak baino ez zituen entzuten. Belarria Mokorro jaunaren bulegoko ateari itsatsita zeukan. Txomin aditu bat zen zigorrak jasotzen. Bere txikikeriak zigortu ezean, nola egingo zuten irakasleek dibertimendu pixka bat izateko?

Mokorrok “Segituan!” Kasildara joateko eskatu zion goiz hartan Martin Martinaren aitari, “Zerbait oso-oso-oso larria” gertatu omen zen. Eta Patxi Mokorroren bulegoan bukatu zuen Xabi Egigurenek bere eginbeharrak alde batera utzita.

Martin Martinaren aita gizon lanpetua bilakatu zen hiriko zirujaurik onenaren ospea eskuratu zuenetik. Bihotzak sendatzen zituen; bihotzak berriz abiaraztea zen bere pasioa. Xabik ez zuen inoiz bere lanean kale egiten; ez gaixo zegoenean, ezta bere urtebetetzea ospatzeko ere. Institutuan gertatzen ari zenak benetan larria izan behar zuen, beraz, lana utzi eta bertaratu zen.

Txomin bulegoko atetik banatu, lagun taldera inguratu eta oso serio jarri zen, informazio garrantzitsu eta sekretu bat gordezten duen norbaiten antzera.

–Egia esatea nahi duzue? –galdetu zion hirukoteari. Ane, Luka eta Martin Martina adi-adi zeuzkan begira.

Honezkero konturatuko zineten Txomin Kasilda institutuan ezaguna bazen, ez zela bere seriotasunagatik, baizik eta behin baino gehiagotan errepikatu zuelako kurtsoa. Emozionatuta zegoen hiru lagunen arreta oso-osorik bereganatu izanagatik.

–Zer entzun duzu? Esan behingoz! –esan zion Lukak.

Pazientzia agortzen ari zitzaion. Urduri zegoen, inoiz ez baitzuen piper egin. Anek eskuetan zuen baloia estutu zuen Txomini begietara tinko zuzenduz. Aneren aldarteak batzuetan beldurra ematen zuen, une hartan bezala. Martin Martinak erregu aurpegia jarri zion, Txominek arnasa sakon hartu eta esan zuen:

–Uste dut Kasildatik botako zaituztela.

Esatearekin batera, Mokorro jaunaren bulegoko atea bat-batean ireki zen. Salazarren begirada zorrotza nahikoa izan zen Lukak eta Anek ziztu bizian alde egiteko.

–Zer egiten duzu hemen? –galdetu zion Salazarrek Txomini. Gazteak gehiago pentsatu gabe Martin Martinari “Animo!” xuxurlatu eta korridore luzean barrena galdu zen.

–Sartu eta itxi atea –esan zuen Mokorro jaunak bulegoaren barrutik.

Inoiz zuzendariaren bulegora deituak izan bazarete, jakingo duzue zer sentitzen den; Martin Martinarentzat, ordea, lehenengo aldia zen. Atea itxi zuenean bere aita ikusi zuen bizkarrez aulki batean eserita, Mokorro jauna aurrez aurre zuen mahaiaren beste aldean. Salazar zutik zegoen eta Martin Martinari aitaren ondoan esertzeko keinua egin zion. Aitak ez zion begirada bat ere eskaini.

Ez zuen aita inoiz horrela ikusi, haserre baino gehiago oso nekatuta zegoela iruditu zitzaion.

–A zer disgustua, a zer disgustua daukadan... –hasi zen esaten Mokorro jauna modu dramatikoan, bibotea leuntzen zuen bitartean–. Horren ikasle fina izanda, ez dakit zerk eraman zaituen ekintza bandaliko hau egitera.

–Zerk? –errepikatu zuen Maite Salazarrek.

Guztiak Martin Martinari begira geratu ziren, erantzun baten zain, nonbait. Berak argi zuen zergatik margotu zuen grafitia. Haserrea eztarritik gora hitzez josia zetorkiola sentitu zuen «Bai, horixe! Azalduko dizut, Zomorro» pentsatu baina, erantzuteko ahoa ireki zuenean, Mokorrok bakarrizketarekin jarraitu zuen:

–Zure aita eta biok oso arduratuta gaude.

–Baita ni ere –moztu zion Salazarrek.

–Badakigu –jarraitu zuen Mokorrok– ez direla zuretzat garai errazak izan, baina horrek ez du gaurko jokabidea inondik inora arrazoitzen. Ez duzu uste?

Martin Martinak ahoa ireki zuen berriz erantzuteko asmo osoz, baina Mokorrok bakarrizketarekin jarraitu zuen:

–Hasieran pentsatu dut institututik gaur bertan eta betiko kanporatzea. Salazar andreari ere ideia bikaina iruditu zaio.

–Ezin dugu gure institutuaren izen ona horrelako aldrebeskeriekin lokaztu... –moztu zion Salazarrek berriz.

–...baina ez nuke zakar jokatu nahi –jarraitu zuen Mokorrok Salazarri begira–, ez baita nire izaera baketsuaren baitakoa. Ikasturtea amaitzeko bi aste falta direla kontuan izanda, zure aitak erabaki du bihar bertan aitona-amonekin uda pasatzera eramango zaituela...

–Eta guri, jakina, ideia bikaina iruditu zaigu –amaitu zuen Salazarrek.

Martin Martinak aitari zeharka begiratu zion. «Aitona-amonen herrira?».

–Herri txiki batek eskaini dezakeen lasaitasuna ongi baina hobeto etorriko zaizu –esan zion Salazar andreak–, eta bitartean aitona-amonekin denbora gehiago pasa ahal izango duzu. Ez al da ideia bikaina?

Mokorro jaunak irribarre moduko bat egin zion Martin Martinari.

–Egonaldiak gertatutakoari buruz pentsatzen lagunduko dizu eta datorren ikasturtea indarberrituta hasiko duzu. Beraz, momentu honetatik aurrera, Kasilda institututik kanpo zaude... datorren ikasturtera arte, jakina.

–Jakina –errepikatu zuen Salazarrek.

Patxi Mokorrok bilera amaitutzat jo izan balu bezala, aulkitik jaiki zen. Salazarrek Martin Martinaren aitari eskua luzatu zion.

–Dena kontrolpean dagoenez utzi egingo zaituztet, ikasleak zain ditut gelan –esan eta Maite Salazar bulegotik irten zen.

–Besterik gabe –jarraitu zuen Patxi Mokorrok Xabiri begira– ez nioke denbora gehiagorik kendu nahi, badakit zeinen garrantzitsua den berorren lana.

–Eskerrik asko guztiagatik –erantzun zuen Xabik, elkarri eskua ematen zioten bitartean.

Martin Martina eta bere aita bulegoko ateraino lagundu zien zuzendariak. Atea itxi zuenean hasperen luze bat egin zuen; «Gaztetasuna, adin tarte txatxuagorik ba ote?» Amak oparitu zion ontzian kafea prestatu zuen “Munduko zuzendaririk onena” leloa irakurri zuen; «Patxi, zeinen ongi hitz egin duzun gaur ere» pentsatu, eta irribarre txiki batek ihes egin zion. Martin Martinari konfiskatutako bizkar-zorroa ireki eta esprai-boteei erreparatu zien, «Bandaloz beteko zaigu mundua». Mahaiko tiradera ireki eta zorroa giltzapean utzi zuen, Kasildako gainontzeko ikasleei konfiskatutako gauzekin batera.

Leiho handira inguratu eta pertsiana veneziarraren zirrikitu batetik Martin Martina eta Xabi Egiguren institutuko ate handitik irteten ikusi zituen. Behean garbiketa lanak hasiak ziren grafiti zatar hura behin betiko ezabatzeko.

Kafeari zurrutada bat eman eta berriz ere bere mahaian eseritzera zihoala, leihoaren kanpoaldean txori arraro bat begira zeukala iruditu zitzaion; gizontxo baten aurpegia zuen animalia bitxi hura pipa batetik erretzen ari al zen? Bien begiradak gurutzatzean txoriak hegan irten zuen.

Goiz hura horren arraroa izan ez balitz, erotzen ari zela pentsatu izango zuen Patxi Mokorro jaunak. Buelta eman eta mahaian eseri zen bere burua lasaitzeko; «Gizon txikien tankera duten txoriak ez dira existitzen, ez eta erretzen duten txoriak ere».

Lo faltari atxiki zion irudipen aldrebes hura eta buelta gehiagorik eman gabe, bigarren lo-kuluxka egiteko prestatu zen. Azken finean, ostirala zen, bere egunik gogokoena. Amak, bazkaltzeko, krocketak prestatzen zizkion eguna.